



## TRAPAGARANGO JAIK 2022

### LEHIAKETA GASTRONOMIKOA: MARMITAKOA

Trapagarango Udalak, abuztuaren 31tik irailaren 4ra ospatuko diren San Ramon Nonatoren omenezko herriko jaiak direla eta, Marmitako Lehiaketa bat ospatuko da irailaren 4an, Funikularrean. Lehiaketa oinarri hauen arabera arautuko dira; parte-hartzaileek baldintza hauek bete behar dituzte:

#### Lehiaketaren oinarriak

##### LEHENENGOA.- Partaideak

Lehiaketan parte hartu nahi duten guztiek parte hartu ahal izango dute. Parte-hartzea taldeka edo banaka egin ahal izango da, eta ez da parte-hartzaileen mugarik egongo.

##### BIGARRENA.- Izen-ematea

Lehiaketarako izen-ematea Udaletxeko Kultura Saileko bulegoetan egin beharko da, abuztuaren 31tik (asteazkena) irailaren 2ra (ostirala), jendaurreko ordutegian, 9: 00etatik 13: 00etara, eta lehiaketa egunean (08: 30etik 9: 00etara), Funikularrean ondoko aparkalekuan..

Inskripzioa doakoa izango da.

##### HIRUGARRENA.- Beharrezko materiala

Parte-hartzaileek beharrezko den material guztia ekarri behar dute: osagaiak, aulkiak, mahiak, sua, labana e.a.

Lehiaketa bukatu eta gero zonaldea garbi utzi beharko dute; tresnak batu, zaborra bota e.a.

Prestatutako platerak egin dituzten pertsonen jabetzakoak dira, eta, komenigarritzat jotzen badute, lehiaketatik kanpoko hirugarren pertsonak gonbidatu ahal izango dituzte dastatzera.

##### LAUGARRENA.- Lehiaketaren lekua eta ordutegia

Marmitako lehiaketa irailaren 4an izango da, Funikularrean. Lehiaketa 9: 00etan hasiko da eta plateren aurkezpena epaimahaiak izendatutako lekuan egingo da, 13: 30ean.

##### BOSGARRENA.- Betebeharrak

Nahitaezkoa izango da metalezko marmitan marmitakoa egitea, ez bada erabiltzen lehiaketatik kanpo geratuko da.



**SEIGARRENA.-** Epaimahaiaren osaketa

Trapagarango Udalak izendaturiko hiru kidez osatuko da epaimahaia, parte-hartzaileekin eta udalerriarekin inolako loturarik izan gabe.

Epaimahaiak platerak baloratuko ditu, plateren hainbat ezaugarri kontuan hartuta: aurkezpena, zaporea,... Nolanahi ere, epaimahaiak hartutako erabakia apelaezina izango da.

**ZAZPIGARRENA.-** SARIAK

Lau sari ezartzen dira:

1. saria: 250 € + txapela + trofeoa
2. saria: 150 € + trofeoa
3. saria: 100 € + trofeoa
4. saria: 90 € + trofeoa

Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 8ko 47/2014 FORU DEKRETUA aplikatuko da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duena. Atxikipen-oinarria 300 eurotik gorakoa duten eta pertsona fisiko batek jasotzen dituen sariak PFEZren % 19ko atxikipena izango dute (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga).

Saria eskudirutan ordainduko da banku-transferentzia bidez, eta epaimahaiaren erabakia formalizatu ondoren.

**ZORTZIGARRENA.-** Parte-hartzearen baldintzak

Lehiaketa honetan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek onartzen direla, baita Antolaketaren eta Epaimahaiaren erabakia ere, oinarri hauetan aurreikusten ez diren kasuetan. Era berean, baimena ematen zaio antolakuntzari argazkiak egin eta argitaratzeko.

Trapagarango Udalak ez du bere gain hartuko lehiaketak irauten duen bitartean gerta daitekeen edozein gorabehera edo istripuren erantzukizuna, ez parte-hartzaileentzat, ez bertaratutakoentzat.